## 4.- Askatasun afektibo-sexuala dela-eta sustatzen diren jarduerak zeharkakoak izatea ahalegintzea, sailen artean egiteko moduko lanak proposatuz, Eusko Jaurlaritzako Sailen artean.

## *4.- Impulsar el carácter transversal de las actuaciones promovidas en el ámbito de la libertad afectivo-sexual, proponiendo trabajos conjuntos con distintos Departamentos del Gobierno Vasco.*

4.1.- Hezkidetza arloan koordinatzeko hainbat bilera egin dira Hezkuntza Sailarekin.

*4.1.- Reuniones con la Dirección de Innovación Educativa para para coordinar actuaciones en coeducación en medidas para impulsar la escuela inclusiva.*

Berritzegune Nagusiarekin elkartu gara Berdindu Eskolak zerbitzu berria amankomunean diseinatzeko.

*Reuniones con Berritzegune Nagusia para diseñar conjuntamente el nuevo servicio de Berdindu Eskolak.*

## 5.- Askatasun afektibo-sexualaren esparruan, sailen arteko koordinazioa indartzea. LGTBI politikak direla-eta Eusko Jaurlaritzan zeharka egiten diren ekintzen jarraipena.

## *5.- Fortalecer la coordinación interdepartamental en el ámbito de la libertad afectivo-sexual. Seguimiento de las acciones que de forma transversal se realicen en el Gobierno Vasco en torno a las políticas LGTBI.*

5.1.- 234/2015 Dekretuan jasotzen den dokumentazio administratiboa izapidetzea.

*5.1.- Tramitación de la documentación administrativa que regula el Decreto 234/2015.*

Beste sail eta administrazio batzuei jakinaraztea dokumentazioa lortu izana (55 pertsona 2019an). Harremanak landu dira zenbait administrazio-organotan, eta informazioaren transmisioan akatsak antzeman dira,

*Comunicación a otros departamentos y administraciones de la obtención de la documentación (55 personas en 2019). Se han realizado contactos en varios órganos administrativos y detectado fallos en la transmisión de la*

2020an prozesua hobetzeko.

*información, que permitirán mejorar el proceso durante 2020.*

6.- Eusko Jaurlaritzaren barruan, sail arteko lana indartzea, hartara, ijito herriaren erabateko sustapena eta partaidetza soziala jorratu behar dituenean, hobeto koordinaturik lan egin dezan.

*6.- Fortalecer el trabajo interdepartamental en el ámbito del Gobierno Vasco, para una mayor y más adecuada coordinación en el tratamiento de la promoción integral y participación social del pueblo gitano.*

Immigrazioaren arloko sailen arteko Ijito Herriaren Sustapen Integralerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren esparruan eratutako batzordeen bidez indartu da.

*El trabajo interdepartamental en materia de inmigración se ha fortalecido a través de las comisiones conformadas en el marco del Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano.*

Biltzen zerbitzuak aniztasunaren arloko prestakuntza-zerbitzuak eman dizkie Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetako langileei, 32 prestakuntza-saio egin dira.

*El servicio Biltzen ha prestado servicios formativos en materia de diversidad a personal de distintos Departamentos del Gobierno Vasco habiéndose llevado a cabo 32 sesiones formativas.*

**3. GIZARTERATZEKO ETA ESKUBIDEAK BERDINTASUNEAN ERABILTZEKO BIDEAN, IMMIGRANTEEI LAGUNTZA EMATEA, ETA, BATEZ ERE, KANPOTIK ETORRIAK DIRELA ETA OKERREN DAUDENEI**

***3. APOYO A LAS PERSONAS INMIGRANTES, ESPECIALMENTE A AQUELLAS EN SITUACIÓN DE ESPECIAL VULNERABILIDAD DERIVADA DE LA CONDICIÓN DE INMIGRANTE, EN SUS ITINERARIOS DE INCLUSIÓN Y DISFRUTE DE DERECHOS EN IGUALDAD***

1.- Atzerritartasunaren alorrean arreta juridikoa eskaintzen duen Sarea (Aholku-Sarea).

*1.- Red de Atención Jurídica en Materia de Extranjería (Aholku-Sarea).*

Zerbitzu honek 2019 urterako finkatuta zeuzkan erronkak bete egin ditu, hedapenari, barne zein kanpo finkatzeari eta eskainitako zerbitzuen kalitateari dagokionez. Zerbitzua erabili duten pertsonek -(11.405 inguru), ehuneko bost (% 5) igo da- arreta egokia jaso dute, euren beharrizanen arabera. Ildo horretatik, 2019. urtean zehar sakondu eta hobetu egin da atzerritartasun-eskubideari buruzko aholkularitza juridikoa, etorkinei administrazioaren aurrean erregularizatzen laguntzeko eta beren egoera finkatzeko.

*Esta red ha cumplido con los retos marcados para el año 2019, tanto en la difusión del Servicio, como en la consolidación interna y externa del mismo; así como, en la mejora de la calidad de los servicios prestados. Todas las personas que han accedido al Servicio, aproximadamente unas 11.405 (incremento del 5% respecto al año anterior), han recibido una adecuada asistencia, acorde con sus necesidades. En tal sentido, a lo largo del año 2019, se ha profundizado y mejorado el asesoramiento jurídico a personas inmigrantes en materia de extranjería, al objeto de ayudarles en su proceso de regularización administrativa, y en la consolidación de su situación administrativa.*

Atzerritartasunaren alorrean arreta juridikoa eskaintzen duen Sarean partaide dira lau agente mota: lehenik, immigrazioaren arloko Zuzendaritza eskuduna; bigarrenik, Biltzen –Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuko talde juridikoa-; hirugarrenik, zazpi gizarte-erakunde (Gurutze Gorria-Euskadi, CEAR-Euskadi, Caritas-Bizkaia, Adiskidetuak, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa eta Cite-CCOO); eta, azkenik, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako hiru Abokatu Elkargoak. Halaber, 25 pertsonek osatzen dute lantalde iraunkorra. Badira tarteka laguntzen duten pertsonak ere, baita hiru Abokatuen Elkargoetako hiru txanda bereziak ere (400 bat abokatu).

*La Red de Atención Jurídica en Materia de Extranjería (Aholku-Sarea) la constituyen cuatro tipos de agentes: en primer lugar, la Dirección competente en la materia de inmigración; en segundo lugar, el equipo jurídico de Biltzen –Servicio Vasco de Asistencia Jurídica, Integración y Convivencia Intercultural–; en tercer lugar, siete entidades sociales (Cruz Roja-Euskadi, Cear-Euskadi, Caritas-Bizkaia, Adiskidetuak, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa y Cite-CCOO); y finalmente los tres Ilustres Colegios de la Abogacía de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba. En equipo de trabajo permanente lo constituyen unas 25 personas. Junto al mismo, existen otras personas que colaboran puntualmente, así como los tres turnos especiales de los tres Colegios de la Abogacía, constituidos por unas 400 personas letradas.*

Ildo horri jarraiki, honako neurri hauek hartu dira:

*En este ámbito las medidas adoptadas han sido las siguientes:*

- Biltzenek telefonoz eta e-mailez atzerritartasunari

- *Asesoramiento en materia de extranjería -telefónico y*

buruz eskainitako aholkularitza. 2019. urtean erantzuna eman zitzaien 2.794 kontsultei (1.784 kontsulta herritarrek egindakoak eta 1.010 profesionalek egindakoak; 148 entitate pribatu eta publikoak egindakoak). Ehuneko berrogeita hamar (%50) igo da.

•Aurrez aurreko arreta. Gizarte-erakundeek 2019. urtean erantzundako kontsultak, jakingarri moduan, 17.393 izan dira (9.982 pertsonei eman zaie arreta). Bestetik, atenditutako profesionalak 1.423 izan dira.

Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzatik 342 deribazio (18 kontsulta, 33 tramitazio, 289 helegite eta 2 tramitazio+helegite), gutxi gora-behera, tramitatu dira Abokatu Elkargoetara. Ehuneko hamabost (%15) igo da.

Gai tekniko desberdinen inguruko hausnarketak egiteko bilera ezberdinak izan dira atzerritartasun bulegoekin; Arabako eta Bizkaiko bulegoekin hain zuzen ere; hainbat gai jorratzea adostu da.

Sailaren Web-orria (Aholku-Sarearen atala) eguneratu egin da. Bertan, Zerbitzuaren funtzionamendua, informazio-liburuxkak, memoriak, bilera-aktak (2015-2019) eta Zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko landutako bideoa txertatu dira.

Bestetik, Elkargoetara deribatutako erabiltzaileen iritzia aztertzeko asmoz inkesta bat banatu egin zen. Emaitzak oso positiboak izan dira. Kudeatu diren inkesta guztietatik %18-k erantzun dute. Gizarte eragileek eta abokatuen elkargoak eskainitako zerbitzuek oso balorazio ona jaso dute, 9 puntutik gorakoa (9,44 puntu, elkarteen kasuan eta 9,11, puntu elkargoen kasuan).

Bestalde, eta Zerbitzuko partaideen prestakuntza hobetzeko, bi saio jorratu ditugu. Batetik, Immigrazioaren esparruko Behatokiarekin –Ikuspegi-, Honetan gure testuinguruan migrazioaren eboluzioa ezagutzeko eta horri buruz hausnarketa egiteko asmoz. Bestetik, Europako zuzenbideari buruz hausnarketa burutzeko elkargoetatik hiru ordezkari eman zuten prestakuntza saio bat.

Azkenik, 2018. urtean gogoeta sakon bat hasi genuen. Batetik, Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren hausnarketaren baitan egindakoa. Bestetik, gogoeta hau 2019. urtean bukatu zen, eta horren harira –Aholku-Sareari buruz hausnarketa zabaltzeko gomendioa egiten du Planak-,barne hausnarketa bukatu bezain pronto beste eragile ezberdinekin partekatzeko aukera adostu zen; horrela immigrazioko teknikariekin, beraien eskarmentua eta erreferentzialtasuna oinarritzat harturik, bi bilera burutu dira eta lan dokumentu bat adostu. Hurrengo bilera 2020. urtean burutuko da.

*vía e-mail- realizado por Biltzen. Fueron 2.794 las consultas atendidas (1.784 consultas de particulares y 1.010 consultas de profesionales; 148 entidades públicas y privadas). Un incremento del 50% respecto al año anterior.*

*•Asesoramiento presencial, realizado por las entidades sociales. A lo largo del año 2019 las consultas de personas particulares atendidas por estas entidades sociales, orientativamente, han sido unas 17.393 (9.982 personas). Por otro lado, el número de profesionales atendidos fue de 1.423.*

*Finalmente, se han tramitado desde la Dirección de Política Familiar y Diversidad a los Colegios de Abogados unas 342 derivaciones. (18 consultas, 33 tramitaciones, 289 recursos y 2 tramitación+recurso). Un incremento del 15% respecto al año anterior.*

*Al objeto de reflexionar sobre diversas cuestiones técnicas, se mantuvieron diversos encuentros con las oficinas de extranjería de Araba y Bizkaia, acordando diversas cuestiones a gestionar.*

*Se ha actualizado permanentemente el contenido de la red Aholku-Sarea en la página Web del Departamento de Empleo y Políticas Sociales. En la misma, se puede encontrar un escrito explicativo del Servicio, los folletos informativos, las memorias correspondientes al Servicio, circular remitida a diferentes agentes, las actas de las reuniones celebradas durante los años 2015-2019, y el video explicativo del funcionamiento de la red.*

*También se ha gestionado una encuesta destinada a las personas usuarias que son derivadas a los Colegios de Abogados. Las valoraciones son excelentes. Del conjunto de derivaciones tramitadas han sido respondidas un 18%. En las mismas, se valoran con una puntuación superior a los 9 puntos sobre 10, tanto los servicios prestados por las entidades sociales (9,44 puntos), como por los Colegios de Abogados (9,11 puntos).*

*Por otra parte, y al objeto de mejorar el nivel formativo de los integrantes de la red, se han mantenido dos encuentros. El primero con el Observatorio Vasco de Inmigración, Ikuspegi, para conocer y reflexionar sobre la evolución migratoria en nuestro contexto. El segundo, fue una jornada formativa sobre Derecho Comunitario, en la que participaron como ponentes tres representantes de los Colegios respectivos.*

*A finales del año 2018, al amparo del V Plan de Actuación en el ámbito de la Ciudadanía, Interculturalidad e Inmigración 2018-2020, se inició un proceso de reflexión interno. Esta reflexión finalizó en el año 2019, posteriormente, se acordó iniciar y compartir nuestras reflexiones con otros agentes. En primer lugar, y debido a su referencialidad, se ha compartido esta reflexión con el personal técnico de inmigración. Para ello, se han realizado dos reuniones. Derivado de todo lo trabajado, han concluido los encuentros con un pequeño documento de trabajo a desarrollar en los próximos meses. Se acordó realizar otro encuentro en el año 2020.*

### 2.- HARRESIAK APURTUZ koordinakundearentzako dirulaguntza izendunarekin jarraitzea, Euskadin etorkinei laguntzeko dauden GKEak koordinatzen dituen aldetik.

### *2.- Continuidad de la subvención nominativa a la Coordinadora HARRESIAK APURTUZ, coordinadora de ONG de Euskadi de apoyo a personas inmigrantes.*

Diru-laguntza izendun bat eman zaio Harresiak Apurtuzi, honako jarduera hauek egiteko:

1. ildo estrategikoa: Sarean lan egitea sendotzea.
2. ildo estrategikoa: Bi norabideko sentsibilizazioa immigrazioaren eta atzerritartasunaren arloan.
3. ildo estrategikoa: Era publikoan eragitea.

*Se ha concedido a Harresiak Apurtuz una subvención nominativa para la realización de las actividades que se detallan a continuación:*

*Línea estratégica 1: Fortalecimiento del trabajo en red.*

*Línea estratégica 2: Sensibilización bidireccional en materia de inmigración y extranjería.*

*Línea estratégica 3: Incidencia pública.*

### 3.- Immigrazio-politikan koordinatu eta parte hartzeko esparruak sendotzea, bereziki etorkinen elkarteen sarean.

### *3.- Fortalecimiento de los espacios de coordinación y participación en la política de inmigración, especialmente del tejido asociativo de personas inmigrantes.*

Migrazio-fenomenoekin zerikusia duten gizarte-erakunde gehienek adostu eta babestu dute azaroaren 30ean Lehendakaritzaren egoitzan egindako ekitaldi batean aurkeztutako Migraziorako Euskal Itun Soziala.

*El día 30 de noviembre, fue presentado el Pacto Social Vasco para la Migración en un acto celebrado en la sede de la Lehendakaritza, que ha sido consensuado y apoyado por la mayoría de organizaciones sociales que actúan en relación con los fenómenos migratorios.*

### 4.- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa sendotzea.

### *4.- Fortalecimiento del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y Ciudadanos Inmigrantes en el País Vasco.*

Lan Batzordeak indartu egin dira elkarte berri batzuk sartu baitira. Halaber, koordinazio lanean aritzen diren elkarteen papera indartu egin da. Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren sei lan batzordeak era aktiboan aritu dira: Berme Juridikoen Batzordea, Lan Batzordea, Osasun Batzordea, Partaidetza, Sentsibilizazio eta Kultura Batzordea, Gizarte Baliabideak eta Etxebizitza Batzordea eta Hezkuntza Batzordea.

*Se han fortalecido las Comisiones de Trabajo con nuevas incorporaciones de asociaciones. Se ha reforzado el papel de las asociaciones que coordinan las Comisiones. Han funcionado de forma activa las seis (6) Comisiones del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y los Ciudadanos Inmigrantes en el País Vasco: La Comisión de Garantías Jurídicas, la Comisión Laboral, la Comisión de Sanidad, la Comisión de Participación, Cultura y Sensibilización, la Comisión de Recursos Sociales y Vivienda, y la Comisión de Educación.*

2018-2020 aldirako Bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren 4.2.4. ekintza betetzeko, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren Ohiko Osoko Bilkuran erabakitakoa betetzeko, bi (2) batzorde berri sortu dira: emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Batzordea eta Bizikidetza eta Harrera Batzordea.

*En cumplimiento de la acción número 4.2.4 del V Plan de Actuación en el Ámbito de la Convivencia, Interculturalidad e Inmigración 2018-2020 así como de lo acordado en el Pleno Ordinario del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y los Ciudadanos Inmigrantes en el País Vasco se han creado dos (2) nuevas comisiones, la Comisión de Igualdad entre mujeres y hombres, y la Comisión de Convivencia y Acogida.*

2019ko abenduaren 11n, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren Ohiko Osoko Bilkura egin zen, eta foroko batzordeek urtean zehar egindako lanen berri eman zuten.

*El día 11 de diciembre de 2019 se celebró el Pleno Ordinario del Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y los Ciudadanos Inmigrantes en el País Vasco, en el que las distintas Comisiones del Foro dieron cuenta de los trabajos desarrollados a lo largo del año.*

## 5.- Atzerritarrak gizartera daitezen lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak finantzatzeko politika ezartzea eta aplikatzea.

5.1.- Laguntza humanitarioa emateko eta batere babesik gabe dagoen jendea hartzeko programari jarraipena ematea.

Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi, Afroamerika eta Goiztiri erakundeentzako diru-laguntza izendunak izapidetu dira, etorkinen egoitza-harrerarako, laguntzarako eta gizarteratzeko eta laneratzeko. Erakunde bakoitzari 100.000 euro emango zaizkio, Gurutze Gorriaren kasuan izan ezik (135.000 euro); izan ere, erakunde horrek Gipuzkoan haurtxoak dituzten emakume etorkinei laguntzeko egindako programa ere diruz lagundu da (35.000 euro).

5.2.- Lau diru-laguntza zuzen eman zaizkie (100.000 euro bakoitza) Harrera programaren onuradun diren erakundeei (Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi, Afroamericana eta Goiztiri), egoera bereziki ahulean eta gizarte-bazterketa larrian dauden migratzaileak hartzeko.

5.3.- Bakarrik dauden 18 eta 23 urte bitarteko gazte immigranteak emantzipatzeko ekimenak babestea.

Diru-laguntza izendun bat tramitatu da CEAR-Euskadik HEMEN programa kudeatu dezan (partzuergo batean biltzen dira CEAR-Euskadi bera, Izangai, Elkarbanatuz, Goiztiri, Adsis, Harribide eta Cáritas elkarteak, Peñascal eta Ellacuria fundazioak).

HEMEN programaren bidez, hezkuntzan eta gizarteratzen laguntzen zaie Aldundiaren tutoretzapetik irten diren gazteei (adinez nagusi egin direlako eta lagundu gabeko etorkin adingabe izateari utzi diotelako).

5.4.- Burubeltz Konpartsa elkarteari laguntza ematea, kultura-aniztasunaren aberastasuna erakusteko, jai-, kultura-, musika-, folklore- eta gastronomia-jardueren bidez.

## 6. Share proposamena

EBko Estatuen, Autonomia-Erkidegoen eta autonomia-erkidego bakoitzaren barruko udalerrien eta eskualdeen artean zeharka aplikatzeko mekanismo bat da, migrazio-erronkaren aurreko erantzunkidetasun-printzipioari dagokiona, erantzukizuna modu sistematizatuan partekatuz.

Proposamen honen gakoa zeharkakotasunean datza, Europan migratzaileak, errefuxiatuak, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak eta familia-erreferenterik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko eta integratzeko ahaleginaren lurralde-banaketa adostuz.

## *5.- Establecimiento y aplicación de una política de financiación a entidades privadas sin ánimo de lucro que trabajan por la inclusión social de las personas inmigrantes.*

*5.1.- Continuación del programa de atención humanitaria y acogida a personas en situación de grave vulnerabilidad.*

*Se han tramitado subvenciones nominativas a las entidades Cruz Roja, CEAR-Euskadi, Afroamericana y Goiztiri para el acogimiento residencial, acompañamiento e inserción socio-laboral de las personas inmigrantes. El importe destinado a tal fin a cada una de las entidades es de 100.000 euros, salvo en el caso de Cruz Roja, cuyo importe ha sido de 135.000 euros, ya que se ha subvencionado también el programa llevado a cabo por esta entidad en Gipuzkoa de apoyo a mujeres inmigrantes con bebés (35.000 euros).*

*5.2.- Se han concedido cuatro subvenciones directas, de 100.000 euros cada una, a las mismas entidades beneficiarias del programa HARRERA (Cruz Roja, CEAR-Euskadi, Afroamericana y Goiztiri), para la acogida de migrantes en tránsito en situación de especial vulnerabilidad y grave exclusión social. En total 60 personas han sido atendidas en este programa.*

*5.3.- Apoyo de iniciativas de emancipación para jóvenes inmigrantes no acompañados, con edades entre 18 y 23 años.*

*Se ha tramitado una subvención nominativa a CEAR-EUSKADI para la gestión del programa HEMEN, que agrupa en un consorcio a la propia CEAR-Euskadi, junto con las asociaciones Izangai, Elkarbanatuz, Goiztiri, Adsis, Harribide y Cáritas y las fundaciones Peñascal y Ellacuría.*

*Mediante el programa HEMEN se apoya el itinerario educativo y de inserción social a jóvenes que han salido de la tutela de Diputación por cumplir la mayoría de edad y han dejado de ser menores extranjeros no acompañados (MENAS).*

*5.4.- Apoyo a la asociación Burubeltz Konpartsa para mostrar la riqueza de la diversidad cultural a través de actividades festivas, culturales, musicales, folclóricas, gastronómicas, etc.*

## *6. Propuesta Share*

*Se trata de un mecanismo de aplicación transversal entre Estados de la UE, Comunidades Autónomas y entre municipios y comarcas dentro de cada Comunidad Autónoma del principio de corresponsabilidad ante el reto migratorio, compartiendo la responsabilidad de un modo sistematizado.*

*La clave de esta propuesta está en la transversalidad, acordando en el ámbito europeo una clave de distribución territorial del esfuerzo de acogida e integración de migrantes en sus diferentes manifestaciones, personas refugiadas, migrantes en situación no regularizada y menores extranjeros sin referente familiar.*

Hiru parametrotan oinarritutako banaketa proposatzen da, diru-sarrera fiskalak,% 50eko pisuarekin, biztanleria,% 30eko intzidentziarekin eta langabezia-indizea,% 20rekin. Adostasunak bilatzeko proposamen irekia da.

*Se propone la distribución en base a tres parámetros, ingresos fiscales, con un peso del 50%, población, con una incidencia del 30% y el índice de desempleo, con un 20%. Es una propuesta abierta a la búsqueda de consensos.*

Proposamena Lehendakaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera aurkeztu zaie estatuz azpiko gobernu eta erakundeei, apirilaren 2an eta abenduaren 4an, Bruselan.

*La propuesta ha sido presentada junto con la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación de Lehendakaritza a gobiernos e instituciones subestatales los días 2 de abril y 4 de diciembre en Bruselas.*

Era berean, Espainiako Gobernuko Migrazioetarako Estatu Idazkaritzan aurkeztu da, 2019ko irailaren 4an izandako bileran, bai eta Gizarte Zerbitzuen Ordezko Batzordearen eta Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren bileretan ere.

*Igualmente, ha sido presentada a la Secretaría de Estado para las Migraciones del Gobierno de España en la reunión mantenida el día 4 de septiembre de 2019 así como en reuniones de la Comisión Delegada de Servicios Sociales y en el Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema de Autonomía y Atención a la Dependencia.*

## 7.- Migratzaileen harrera eta asiloa hobetzeko lan-mahaia.

## *7.- Mesa de trabajo para mejorar la acogida y asilo a personas migrantes.*

2019ko irailaren 4an Consuelo Rubí Espainiako Gobernuko Migrazioetarako Estatu Idazkaritzarekin izandako bileran, sortzea migrazio-gaien arloan, migrazio- eta asilo-arloko harrera- eta integrazio-prozesuak hobetzeko mahai bat sortzea erabaki zen. Lan-mahaia 2019ko urriaren 29an bildu zen.

*En la reunión mantenida el día 4 de septiembre de 2019 con la Secretaría de Estado para las Migraciones del Gobierno de España, Consuelo Rubí, se acordó la creación de una mesa de trabajo en materia de cuestiones migratorias para mejorar los procesos de acogida e integración en materia migratoria y de asilo. La mesa de trabajo se reunió el 29 de octubre de 2019.*

## 8.- Iragaitzazko migratzaileentzako arreta humanitarioa.

## *8.- Atención humanitaria a migrantes en tránsito.*

2018ko eta 2019ko ekitaldietan, euskal erakundeek gaitasunak eta baliabideak koordinatu dituzte, eta, Gurutze Gorriarekin lankidetzan, larrialdiko harrera-aterpeen sistema bat formalizatu da, eta ordutik Koordinazio Mahai batek bideratu du.

*A lo largo de los ejercicios 2018 y 2019, las instituciones vascas han coordinado capacidades y recursos y en colaboración con Cruz Roja se ha formalizado un sistema de Albergues de acogida de emergencia, que ha sido canalizada desde entonces por una Mesa de Coordinación.*

Horretarako, lau aterpetxe gaitu dira: Bilbon, 88 plaza; Donostian, 60 plaza (100 2019ko urritik); eta Gasteizen, 55 plaza. Era osagarrian, 2018ko irailean, Berrizen Olakueta-Etxea gaitu zen, 58 etorkinentzako kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzako zentroa. 2018ko urrian Larraña-Etxea ireki zen Oñatin, 100 lagunentzako edukiera duena, eta nazioarteko babesa eskatzen dutenentzako lehen harrerako zentro gisa. Salbuespen gisa, zaurgarritasun- edo igarotze-egoeran dauden migratzaileak har baititzake.

*Para ello, se han habilitado cuatro Albergues: en Bilbao, 88 plazas, en Donostia, en Irún 60 plazas (100 desde octubre de 2019) y 55 plazas en Vitoria-Gasteiz. De modo complementario, en septiembre de 2018, quedó habilitado en Berriz Olakueta-Etxea, centro para personas en situación de vulnerabilidad con capacidad para 58 migrantes. En octubre de 2018 se abrió el Larraña-Etxea en Oñati con capacidad para 100 personas y como centro de primera acogida para solicitantes de protección internacional que, con carácter excepcional, puede acoger a migrantes en situación de vulnerabilidad o tránsito.*

2019ko ekainaren 3an aurkeztu zen Euskadira joan-etorrian iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko Kontingentzia Plana, Gurutze Gorriarekin adostua eta hiru foru-aldundiekin eta Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Irungo udalekin partekatua.

*El día 3 de junio de 2019 se presentó el Plan de Contingencia para la atención humanitaria a migrantes que llegan en tránsito a Euskadi acordado con Cruz Roja y Compartido con las tres Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de Bilbao, Donostia, Gasteiz e Irún.*

Plan horretan hiru agertoki posible aurreikusten dira, litekeena, 2018koen antzeko iritsiera-fluxuekin; egoera posiblea non fluxuak bikoiztu egin daitezkeen, egunean 500 pertsona irits daitezkeelarik, eta agertoki berezi bat.

*En dicho Plan se prevén tres escenarios posibles, un escenario probable, con flujos de llegada similares a los de 2018, un escenario posible en el que los flujos podrían duplicarse pudiendo registrarse la llegada de 500 personas al día y un escenario excepcional.*

4.244 pertsonetatik 779 (% 18) Bilboko zerbitzuan artatu zituzten eta gainerako 3.465 pertsonak (% 82) Irungo zerbitzuan. Etorrera kopuru handiena urtarrilean

*En 2019 han sido 4.244 las personas atendidas en el marco del Plan de Contingencia, 779 (18%) fueron acogidas en el recurso de Bilbao y las 3.465 (82%)*

erregistratu zen eta orduan artatu zuten pertsona kopuru handiena. Urtarrilean bakarrik, urte osoan artatutako pertsona guztien % 20 baino gehiago artatu zituzten.

*personas restantes en el dispositivo de Irún. Enero fue el mes en el que se registraron el mayor número de llegada y en el que más personas se han atendido. Sólo en el mes de enero, se atendieron a más de un 20% del total de las personas acogidas en todo el año.*

**4. LGTBI PERTSONEI BABESA ETA LAGUNTZA EMATEA, ORIENTAZIOA, AHOLKULARITZA ETA INFORMAZIOA ESKAINIZ**

***4. APOYO Y ACOMPAÑAMIENTO A LAS PERSONAS LESBIANAS, GAYS, TRANS, BISEXUALES E INTERSEXUALES (LGTBI), CON ORIENTACIÓN, ASESORÍA E INFORMACIÓN***

1.- LGTBI pertsona eta senideentzako aholkularitza eta orientazioko BERDINDU zerbitzuari jarraipena ematea, gizarte-erakunde espezializatuen bitartez.

*1.- Dar continuidad al servicio de asesoría y orientación a personas LGTBI y sus familias "BERDINDU", a través de entidades sociales especializadas.*

Zerbitzua hiru lurraldetan eskaini da, eta zerbitzu ibiltari bat ere izan da eskuragarri, trans pertsonentzat (Berdindu Ibiltari). Halaber aholkularitza ikastetxetan eman die familiei, beti ere, Ikastetxe horietan badago adingabekoren bat hauetako egoeran badago: trans, transexualitatearen bidean, edo mutil batengatik edo neska batengatik espero denari ez dagokion genero adierazpena egiten dena (Berdindu Familiak). Sexu, familia eta genero aniztasunaren esparruko elkarteek kudeatzen dute Berdindu zerbitzua.

*Se ha continuado ofreciendo dicho servicio en los tres territorios y de forma iitinerante en el caso de las personas trans (Berdindu Ibiltari). También se ha dado asesoramiento a familias en centros educativos donde hay algún menor trans, en situación de transexualidad, o con una expresión de género que no corresponde con lo que se espera de una chica o un chico. (Berdindu Familiak). El servicio Berdindu es gestionado por asociaciones del ámbito de la diversidad sexual, familiar y de género.*

Hiru belegoetan eta ibiltari zerbitzuan jasotako Kontsulten kopurua 2.549 (2.018 pertsona, 531 entitate)

*Número de consultas en las 3 oficinas y en el servicio Ibiltari: 2.549 (2.018 personas, 531 entidades).*

Berdindu Familiak zerbitzuan artatutako familien kopurua. 154

*Número de familias atendidas en Berdindu Familiak. 154*

**5. IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENA ETA PARTAIDETZA SOZIALA LAGUNTZEA**

***5. APOYO A LA PROMOCIÓN INTEGRAL Y PARTICIPACIÓN SOCIAL DEL PUEBLO GITANO***

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua.

*1. Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco.*

1.1.- Kontseiluko idazkaritza teknikoa.

*1.1.- Secretaría técnica del Consejo.*

Biltzen Zerbitzutik kudeatutako Kontseiluko idazkaritza teknikoari eutsi zaio. Bertatik, Kontseiluaren eta Batzordeen funtzionamenduari laguntza ematen zaio, eta euren baitan erabakitako ekintzak aurrera eramaten ere laguntzen da.

*Se mantiene la secretaria técnica del Consejo gestionada desde el servicio Biltzen, prestando asistencia desde la misma al funcionamiento del Consejo y sus comisiones así como para la implementación de las actuaciones acordadas en su seno.*

1.2.- Ijitoen Kontseiluak garatutako lanak koordinatzea eta dinamizatzea.

*1.2.- Coordinación y dinamización de los trabajos desarrollados por el Consejo Gitano.*

2019an Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkura bat izan da, abenduaren 18an.

*En 2019 se ha celebrado una sesión plenaria del Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco, con fecha 18 de diciembre.*

Kontseiluaren Osoko Bilkuran kontseiluburuordetza ordezkatu da. 289/2003 Dekretuaren arabera, presidenteordearen kargua Kontseiluan parte hartzen duen gizarte-elkarteren batek hartu behar du beti.

*El pleno del Consejo ha sido escenario para el relevo en la vicepresidencia del mismo, que de acuerdo a lo previsto en el Decreto 289/2003 es desempeñada siempre por una persona elegida en representación de las organizaciones sociales que participan en el Consejo*

Kontseiluburuorde berriari Gizarte Zerbituen Euskal

*Al nuevo Vicepresidente se le ha encomendado la*

Kontseiluan Ijitoen Kontseiluaren ordezkari izateko ardura eman zaio.

Bilkura horretan, gainera, 2019an Ijitoen Kontseiluaren osaeran izandako aldaketen berri eman da, izan ere, urtean zehar, Ijitoen Kontseiluko bi elkartek baja eskatu dute eta batek alta eskatu du.

Kontseiluaren osoko Bilkurak, bestalde, Osasun Batzordea sortzea onartu du.

Ijitoen Kontseilua osatzen duten batzordeen jarduna esanguratsua izan da 2019an:

- Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra behin bildu da, (2018-2020) Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren barruan burututako ekintzei jarraipena egiteko.
- Ijito-elkarteen Batzordea 4 aldiz bildu da.
- Emakume Ijitoen Batzordea 3 aldiz bildu da.
- Hezkuntza Batzordea 4 aldiz bildu da, zeregin hartuta Euskadiko ikasle ijitoen eskola egoera aztertzea.

## 2.- 2018-2020 Ijito Herriarekiko Euskal Estrategian jasota dauden neurriak eta jarduerak gauzatzea eta jarraipena egitea.

Dagoeneko urtebete pasatu da Estrategia onartu zenetik, horregatik 2019an martxan jarritako ekintzen jarraipena egin da.

Estrategiaren ekintza guztietatik, martxan jarritako ekintzen ehunekoa:

2018-2020 Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiak, bere 3 ekintza-ardatzetan, 18 ekintza-lerro jasotzen ditu guztira, eta horiek gauzatzeko 58 ekintza proposatzen ditu.

18 ekintza-lero horietatik, 14 ekintzetan (%77), dagoeneko martxan jarri da proposatutako ekintzen bat, halaere Estrategian proposatzen diren ekintzetatik martxan jarritako ehunekoa baxuagoa da.

Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren 14. ekintza-lerroa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren eguna ospatzeko, 2019ko azaroaren 15ean Gernikako Batzarretxean, agintariek harrera egin zien Ijito Kontseiluan parte hartzen duten ijito-entitateei.

Halaber, azaroaren 16an Barakaldon, Sonakay taldearen kontzertua izan zen, ijitoen kultura eta euskara batzen duena.

Bestalde, azaroaren 18an Bilboko Burtsa Gizarte Etxean, ijitoen kontrako jarrerari buruzko lan-jarduna burutu zen

Azkenik, Eraberean Sarearen jardunaren barruan, tratu-berdintasunaren alde eta diskriminazioaren kontrako

*representación del Consejo Gitano en el Consejo Vasco de Servicios Sociales.*

*En la sesión se ha dado cuenta, asimismo, del alta que se ha producido durante el año de una entidad en el Consejo Gitano y de la baja de otras dos.*

*Por otra parte, el pleno del Consejo ha aprobado la creación de una Comisión de Salud.*

*2019 ha contado con actividad significativa en lo que se refiere a las comisiones que integran el Consejo:*

- *La Comisión Permanente se ha reunido en una ocasión con objeto de realizar un seguimiento de las acciones realizadas dentro de la Estrategia Vasca con el Pueblo Gitano (2018-2020).*
- *La Comisión de asociaciones gitanas se ha reunido en 4 ocasiones.*
- *La Comisión de Mujeres Gitanas se ha reunido en 3 ocasiones.*
- *La Comisión de Educación se ha reunido en 4 ocasiones, con la tarea de avanzar en un análisis de la situación escolar del alumnado de etnia gitana en el País Vasco.*

## *2.- Desarrollo y seguimiento de las medidas y actuaciones previstas en la Estrategia Vasca con el Pueblo Gitano 2018-2020.*

*Transcurrido un año desde que se aprobó la Estrategia, se ha procedido en 2019 a realizar un seguimiento de las acciones que ya han sido puestas en marcha.*

*Porcentaje de actuaciones implementadas, del total de actuaciones de la estrategia:*

*La Estrategia Vasca con el Pueblo Gitano 2018-2020, en sus tres ejes de acción, contempla un total de 18 líneas de acción para cuya implementación se proponen un total de 58 actuaciones.*

*De las 18 líneas de acción, en 14 de ellas (el 77%) ya se ha puesto en marcha alguna de las actuaciones propuestas, siendo el porcentaje de las actuaciones implementadas que se proponen en la Estrategia inferior.*

*En cumplimiento de la iniciativa 14 de la Estrategia Vasca con el Pueblo Gitano, para conmemorar el Día del Pueblo Gitano en Euskadi, el día 15 de noviembre de 2019 se llevó a cabo una recepción de autoridades a las entidades que forman parte del Consejo Gitano en la Casa de Juntas de Gernika.*

*Asimismo, el día 16 de noviembre, tuvo lugar en Barakaldo un concierto del grupo Sonakay que fusiona la cultura gitana y el euskera.*

*El día 18 de noviembre de 2019 se celebró un taller sobre el antigitanismo en el Centro Cívico la Bolsa en Bilbao*

*Finalmente, se mantiene la atención a la comunidad gitana en el marco de actuación de la Red Eraberean*

jarduna, alegia, Ijitoen Herria artatu egiten da. EAEko lau ijito-elkarte Sare horretako partaide dira eta, ijitoen inguruari dagokionez, sentsibilizazioan eta prestakuntzan ekarpenak egin dituzte. Eurek dira, gainera, diskriminazio kasuak jaso eta kudeatu dituztenak. 2019an Eraberean Sarearen barruko ijito elkarteek, antenek, alegia, 14 kasu artatu dituzte.

*para la igualdad de trato y no discriminación. En este sentido, cuatro de las principales asociaciones gitanas de la CAPV vienen participando en la red contribuyendo a la sensibilización y formación sobre la materia en su entorno además de ser receptores y gestores de los casos de discriminación de los que tienen noticia, siendo así que en el ejercicio 2019 las antenas gitanas de la red se han ocupado de un total de 14 casos.*

**6. . IMMIGRAZIOKO, KULTURA ANIZTASUNEKO ETA ANIZTASUN AFEKTIBO SEXUALEKO POLITIKAK KOORDINATZEKO ESPARRUAK INDARTZEN SAIATZEA, BATEZ ERE ETORKIN TALDEEN, IJITOEN ETA LGTBI-EN SAREAK ETA ELKARTEAK**

***6. BÚSQUEDA DEL FORTALECIMIENTO DE LOS ESPACIOS DE COORDINACIÓN DE LA POLÍTICA DE INMIGRACIÓN, DIVERSIDAD CULTURAL Y DE DIVERSIDAD AFECTIVO-SEXUAL, ESPECIALMENTE DE LAS REDES Y DEL ASOCIACIONISMO DE LOS COLECTIVOS INMIGRANTES, PUEBLO GITANO Y LGTBI***

1.- Eraberean Sarea sendotzea (Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Sarea).

*1.- Fortalecimiento de la Red Eraberean, Red para la Igualdad de Trato y No Discriminación.*

Eraberean Sarea honako hauek osatzen dute:

- Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza.
- Biltzen eta Berdindu zerbitzuak.
- eta hirugarren sektoreko 11 entitate, immigrazioaren, ijito herriaren eta LGTBI kolektiboen arlokoak. Entitate horiek antena moduan jarduten dute diskriminazio egoerak detektatzen, eta biktimenganako zuzeneko arreta bermatzen dute.

*La Red Eraberean está formada por:*

- *la Dirección de Política Familiar y Diversidad.*
- *los servicios Biltzen y Berdindu.*
- *y 11 entidades del tercer sector, del ámbito de la inmigración, del pueblo gitano y del colectivo LGTBI. Estas entidades actúan a modo de antenas para la detección de situaciones discriminatorias, y que aseguran la atención directa a posibles víctimas.*

1.1.- Barneko jarduera: Eraberean Sarearen koordinazioa eta dinamizazioa.

*1.1.- Actividad interna: Coordinación y dinamización de la Red Eraberean.*

Helburu horrekin, 2019an, Eraberean Sareak hurrengo lan-jardunak burutu ditu.

*A tal fin, en 2019 se han llevado a cabo una serie de jornadas de trabajo de la Red Eraberean.*

Eraberean Sarearen talde eragilea 10 aldiz bildu da 2019an.

*El grupo motor de la Red Eraberean se ha reunido en 2019 en 10 ocasiones.*

Eraberean Sarea 9 aldiz bildu da osoko bilkuran (plenarioan).

*La Red Eraberean ha realizado en 2019 un total de 9 sesiones plenarias.*

Eraberean Sarearen barruan dauden hiru Batzordeak (Informazioa eta Dokumentazioa; Prestakuntza eta Sentsibilizazioa; diskriminazioaren biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza) hainbat aldiz bildu dira 2019an, gehienetan, bilera horietako gehienak osoko bilkurekin bat etorriz.

*Las tres comisiones existentes dentro de la Red Eraberean (Información y Documentación; Formación y Sensibilización; Atención, Asesoramiento y Acompañamiento a víctimas de discriminación) han mantenido diversas reuniones a lo largo del año 2019, siendo la mayoría de estas reuniones coincidentes en fechas con las sesiones plenarias.*

Gainera, 2019an burutu den barneko lan bat hurrengoa izan da: Eraberean Sarearen aplikazio informatikoa berraztertzea eta bere hobekuntzarako proposamenak egitea.

*Además, en 2019, a nivel interno, se ha llevado a cabo un proceso de revisión del aplicativo de la Red Eraberean y propuestas de mejora.*

Bestalde, 2019an Eraberean Sarearen barneko jarduerari dagokionez, merezi du azpimarratzea Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren arteko lankidetzatik eratorritako jarduera. Jarduera horrek bi erakunde horiek 2018an sinatutako lankidetza-hitzarmenean du oinarri. Lankidetza hori elkarrekin egindako hainbat ekintzatan gauzatu da urtean

*Por otra parte, en cuanto a actividad interna de la Red en 2019 cabe mencionar la actividad que se deriva de la colaboración entre el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco y la Clínica Jurídica por la Justicia Social de la Universidad del País Vasco, en base al convenio de colaboración que firmaron en 2018 ambas entidades. Esta colaboración se ha materializado en diferentes actividades que se han realizado conjuntamente*

zehar:

• Eraberean Sarea Klinika Juridikoaren mintegi iraunkorreko prestakuntza-saioetara joatea eta parte hartzea. Aipagarriena.

Eraberean Sareak artatutako kasu batzuen aurkezpena. Kasu horiek Klinika Juridikoko ikasleen aztergai izan dira (TFG eta TFM).

Gai honi buruzko saioa: “Litigazio estrategikoa Ijito-herriari dagokionean”.

Klinika Juridikoaren aldetik “kasuak bueltatzeko saioa”. Eraberean Sareak aurkeztutako kasuak landu dituzten ikasleek, Klinika Juridikokoek, bi kasu “bueltatu” dizkiote Eraberean Sareari, Sareak aukeratu ditu bi kasu horiek, bukatutako lanen artean.

Klinika Juridikoak Eraberean Sareari laguntzen dio, Sarearentzat interes estrategikoa duten edukiak lantzen.

Klinika Juridikoaren parte-hartzea Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I Euskal Kongresuaren inguruko ebaluazio- eta jarraipen-bileretan.

1.2.- Kanpoko jarduera: Gizarte-proiekzioa eta pertsonak eta kolektiboenganako arreta.

Kanpoko jarduerari dagokionez, 2019an Sarearen helburua izan da aurrerapausoak ematea eta hobekuntzak egitea bere bi lan-ardatzetan:

1.2.1. Arreta, Aholkularitza eta Laguntza:

Lan-ardatz honen barrukoak dira laguntza- eta orientazio- zerbitzuaren jarduera-lanak (kasuak artatu). Zerbitzu horrek helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo sexu-identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioaren biktimei laguntzea.

Eraberean Sareak, guztira, 60 diskriminazio-kasu artatu ditu 2019an.

1.2.2. Prebentzioa, Prestakuntza eta Sentsibilizazioa:

Lan-ardatz honen barruan daude, besteak beste, sentsibilizazio- eta komunikazio-materialak sortzea eta zabaltzea; prestakuntza moduluak diseinatzea eta modulu horiek irakastea; informazio- eta dokumentazio-ekintzak.

Lan-ardatz honetan 2019an egin diren ekintzak hauek izan dira:

• Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak:

Akaso “Eraberean Sarearen jarduna 2018an” txostena egitea eta zabaltzea izan da jarduerarik esanguratsuena, Sareari buruzko informazioa emateari dagokionez.

Eraberean Sareak bere ibilbidearen laugarren urtean izandako jarduera jasotzen du txostenak, eta helburu nagusi dauka nabarmentzea sareak eta hura osatzen duten elkarteek 2018an egindako lana. Gainera,

*a lo largo del año.*

• *Asistencia y participación de la Red Eraberean en los seminarios de formación llevados a cabo desde la Clínica Jurídica. A destacar:*

*Presentación por parte de la Red Eraberean de una selección de casos atendidos por la Red. Estos casos han sido objeto de trabajo del alumnado de la Clínica Jurídica (TFG y TFM).*

*Sesión sobre “Litigación estratégica en temas relacionados con el colectivo gitano”.*

*Sesión de “devolución de casos” por parte de la Clínica Jurídica. Ha consistido en la devolución de dos casos a la Red, por parte del alumnado responsable de esos trabajos. Los casos han sido elegidos por la Red de entre aquellos trabajos ya finalizados.*

*La Clínica Jurídica presta su colaboración a la Red Eraberean para abordar contenidos de interés estratégico para la Red.*

*Participación de la Clínica Jurídica en las reuniones de evaluación y seguimiento del I Congreso Vasco sobre Igualdad de Trato y No Discriminación.*

*1.2.- Actividad externa: Proyección social y atención a personas y colectivos.*

*En cuanto a su actividad externa, en 2019 el objetivo de la Red ha sido avanzar y mejorar en sus dos ejes de trabajo:*

*1.2.1. Atención, Asesoramiento y Acompañamiento:*

*Funcionamiento del servicio de asistencia y orientación a posibles víctimas de discriminación por razón de origen racial, étnico o nacional, y por orientación o identidad sexual e identidad de género (atención de casos).*

*La Red Eraberean ha atendido en 2019 un total de 60 casos de discriminación.*

*1.2.2. Prevención, Formación y Sensibilización:*

*Preparación y difusión de materiales de sensibilización y comunicación; preparación de módulos de formación e impartición de los mismos, actividades de información y documentación.*

*Indicamos a continuación las actividades realizadas en 2019 en este eje de trabajo:*

• *Actividades de información y difusión de la Red:*

*Quizá la más significativa en cuanto a información sobre la Red, es la elaboración del Informe 2018 de actividad de la Red Eraberean y difusión del mismo.*

*El informe recoge la actividad de la Red Eraberean en su cuarto año de andadura y tiene como objetivo principal dar visibilidad al trabajo realizado durante 2018 por la red y por las asociaciones que la*

gaiaren inguruan giza ikuspegi bat eratzeko biktimen testigantzak jasotzen dira.

Txostena euskarri digitalean eta paperean egin eta zabaldu da. Txostena Sarearen webgunean eskuragarri dago: www.euskadi.eus/erabereansarea

Horrez gain, Eraberean Sarea osatzen duten entitateak ere (antenak) Sarea ezagutarazteko lanean aritu dira urtean zehar gune ezberdinetan.

- Prestakuntza-jarduerak:

  Barne-prestakuntzarako bi saio egin dira urtean zehar, Sareak berak antolatuta:

  - "Derecho Colaborativo"-ari buruzko prestakuntza-saioa.

  - "Alquileres conscientes"-ari buruzko prestakuntza-saioa.

  Prestakuntza hori Zuzenbide Kolaboratiboko Euskadiko Elkartearen kargu egon da.

  Prestakuntza-jarduera horietaz gain, arestian aipatu den bezala, Eraberean Sareak Klinika Juridikoaren mintegi iraunkorreko prestakuntza-saioetan parte hartu du 2019an, bi entitate horien arteko lankidetza-hitzarmenari esker.

- Sentsibilizazio-jarduerak:

  Eraberean Sareak 2019an Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik ezari buruzko Oinarrizko Gidaren edizio berria egin du, euskarri digitalean. Gida Sarearen webgunean eskuragarri dago:

  www.euskadi.eus/erabereansarea

  Azkenik, Eraberean Sarearen testuinguruan, Sarea osatzen duten elkarteetako batek, CEAR Euskadik, hain zuzen, sentsibilizazio-jarduera bat burutu du 2019an: "Egin bat diskriminaziorik gabeko alokairuekin" kanpaina Vitoria-Gasteizko immobiliarien artean berriz zabalkundea ematea.

  Kanpaina hori 2018an burutu zen, diskriminaziorik gabeko etxe-alokairua bultzatzeko.

*componen, además de ofrecer entrevistas con víctimas que aportan una visión más humana del tema.*

*El Informe se ha realizado y difundido en versión digital y en papel. El Informe está disponible en la web de la Red: www.euskadi.eus/rederaberean*

*Al margen de esta actividad, las entidades integrantes de Eraberean (las antenas) han realizado a lo largo del año un intenso trabajo en cuanto a difusión de la Red en diversos espacios.*

- *Actividades de formación:*

  *A lo largo del año se han realizado dos sesiones de formación interna organizadas por la propia Red:*

  *- sesión de formación sobre "Derecho Colaborativo".*

  *- sesión de formación sobre "Alquileres conscientes".*

  *Ambas formaciones han corrido a cargo de la Asociación de Derecho Colaborativo de Euskadi.*

  *Además de estas sesiones de formación, tal y como se ha indicado anteriormente, el personal de la Red Eraberean ha participado en 2019 en las sesiones de formación de la Clínica Jurídica gracias al convenio de colaboración entre ambas entidades.*

- *Actividades de sensibilización:*

  *La Red Eraberean ha realizado en 2019 una nueva edición en versión digital de la Guía Básica sobre Igualdad de Trato y No Discriminación. La Guía Básica está disponible en la web de la Red:*

